

noaia

**Espainiako Gobernuari
normala iruditzen zaio
militarrak kaxkotik
barrena ibiltzea**

**Zubietako zabor
edukiontzia, zigilatuta**

**Jostailu Azoka ospatuko
da asteburu honetan**



Santo Tomas azoka

Igandean, plazara



URDAIRA

Sagardotegia

Abenduak 20 **BARRIKOTEA**
20.00h Urdairan
 astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



Abenduan Erosketa DOAINIK

jostailu denda
xirimbolo

(abenduko erosketa baten zozketa)
 erosketaren balioa bertan gastatzeko
 bale bat izango da

Etxebeste Kalea, 15 943 37 75 96 Usurbil



*Zorionak eta
 urte berri on!*

**URTINEA
 LORATEGIA**

Egun osoa irekia • San Esteban auzoa
 ☎ 943 362 255 Faxa: 943 366 054 • urtinea@urtinea.com



GOIEGI

Jatetxea- Restaurante

SANTA LUZIA dela eta...
GAU BEREZIA Goiegin,
Musikarekin jai giro bikaia!
 (azaroaren 13an) erreserba ezazu!

KARTA-ASTEKO BEREZIA-MENU ADOSTUAK

 **943 36 14 04**
www.goiegi.com Irubide bailara 1, LASARTE-ORIA

Albistea iruditan

Andatzan amaitu zuten Mendi Astea

Txile-Atacama eta Andatzako txangoen proiektzioen ostean, heritik barrena eginiko ibilaldiarekin amaitu zen azaroaren 29an, 2014ko Mendi Astea. Hauxe egun hartaz Andatzakoek idatzi duten kronika: "Eguraldiak ez du lagundu gehiagorako, bidean gogoratu ere ez. 10 lagun elkartu gara ibilaldia egiteko. Zortzietan atera eta hamabien bueltan, atsedentxo Andatzako bordan eginez. Eguraldi kaskarra, euria denbora guztian. Indarrik gabeko euria, baina atertu gabe". Hurrengo irteera, 2015ean. Datozen asteetan zehaztuko dute Andatzakoek, urte berrirako txangoen egutegia.



Azaroaren 29an amaitu zen Mendi Astea. Euritan egin zuten Andatzarako mendi irteera.

Larunbatean, berriro Andatzara

Otsaila aldera Usurbilgo Gaztetxea botatzekoak direla eta, ekimen zaparrada antolatu du Usurbilgo Gazte Asanbladak. Tartean, Andatzara mendi buelta

larunbat goiz honetan, abenduaren 13an. Ondoren, hamaiketako egingo dute. Gogoan izan bestalde, ostegun

honetan, abenduaren 11n, 20:30etatik aurrera, afari beganoa Gaztetxean, borondatearen truke.

Laburrean

Gorabeherarik ez langabezia-tasan

351 langabetu azaroan Usurbilen. Urrian baino bi herritar gehiago; 170 gizonezko, 181 emakume. Gehienak zerbitzuetan, 228. Kontratazioak zertxobait gora egin du, baina aldaezina den errealtate dugu; azaroan erregistraturiko lan kontratu gehienak, 309tik 294 aldi baterako izan dira. 214 zerbitzuetan.

Gizonezko gehiago kontratatu dira, 172. 137 emakumezko.

Osakidetzako grebak, jarraipen zabalagoa

Bai behintzat Usurbilgo anbulatorioan. Osakidetzan ordezkaritza duten SATSE, ELA, LAB, SME-FHH, CCOO, UGT eta ESK sindikatuek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako langileak lan uztera deituak zituzten abenduaren 4an. Usurbilgo osasun etxean, langileen erdiak bat egin zuten greba egunarekin. Zerbitzu hobeago baten alde mobilizatu eta suntsitutako lanpostuak berreskuratzeko protesta egitera irten ziren kalera.

Bota gaia, Inauteri Festarako

Bururatzan zaizkizuen proposamenak, bidali emailaz elkarte@noaia.com helbidera. Edo idatzi bestela zuen ideiak, tabernetan jarri ditugun zerrendetan. Abenduaren 18an, osteguna, bilera antolatu dugu 18:30etan Potxoenean. Bertan erabakiko da otsailaren 14an ospatuko den Inauteri Festarako gaia. Eta egitauraua ere lotzen hasiko gara. Bilerak irekia izango da. Eragile eta herritar, gonbidatuak zaudete hitzordura.

noaia

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaia.com /// www.noaia.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaia.com

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaia.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara
Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Arana-
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udalak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Nerea Zinkunegi**

Gattunk kuttun

Ezin dut ukatu, ikastolan aferaren berri eman zigutenean halako barruko berotasun bat igo zitzaidan barrunbeetatik belarrietaraino. 2015. urteko kilometroak jaialdia Udarregi ikastolari "eman" zaio, oparia bailitza (pentsatu nuen nire artean). Begiratuak gurutzatu genituen irakasleonek artean eta kontrastea sumatu nuen idazkaritza eta zuzendaritza eremuan sortu zen festa giroarekin alderatuta. Marro-netti.

Urteak eraman ditu ikastolak, gure ikastolak, berri hau

entzungo genuen egunaren zain. Beharra zegoen, eraikin berriaren beharra, ez ginen genuenean sartzen.

Hasi besterik ez da egin erronka eta dagoeneko herri-tar mordoxka batek milaka ordu sartu ditu lanean aurreko asteburuko aurkezpen jaialdia eta GATTUNK denda eta orokorrean salduko den material guztia martxan jarri ahal izateko.

Hitzak falta ditut azaroaren 29an kiroldegian bizi izan genuena deskribatzeko eta bizi-pen horretan partaide izaten gonbidatzeagatik eskertzeko.

Gailurik ez dago kiroldegiko pistan sortu zen berotasuna neurtzeko.

Jakin badakit, hala ere, ikastolako kide garen guztiok ez dugula momentu hau, urte hau, modu berean biziko, naturala den bezala. Batzuk seme-alabak ikastolara herrian beste ikastetxerik ez dagoela eta bidaltzen dituztelako, besterik gabe. Beste batzuk gure lana lanpostu bizi dugulako eta beste batzuk auskalo zergatik... kontuz! Ez nuke nahi honek kritika usainik hartzea, ez da helburua, norberak neurtzen

du bere burua.

Urtebete iraungo duen bidai honetan, tramu txikian izango bada ere, trenean igotzera gonbidatu nahi zaituztet, berdin dio bidaiaren hasieran igo eta hurrengo geltokian jaitsiko bazara ere, baita bide erdian igo eta jaisten bazara ere, benetan. Baina igo, pasaia me-rezi du eta.

Ah! Ohar txiki bat; nire uste apalean...GATTUNK dendan saltzen den arropa ez da neska edo mutilena, erosten duenarena baizik. Puska ditzagun ba estereotipoak!! (ezin isilik pasa).

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | **Nerea Zinkunegi** | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Joxe Piñas

Ika-Mika

Abertzaleak, independentzia, askatasuna eta enplegua

Besteren konturako lana bultzatzen duen eredu neoliberalaren ondorioak honakoak dira: espainiar estatuko Zerga Agentziaren arabera, 2014ko azaroa honetan, soldatapekoen %34a, hau da, 5,7 milioi pertsona, seiehuneuristak dira. Hau da, Lanbidearteko Gutxieneko soldata jasotzen dute. Beste 2,1 milioi pertsonak 1.000 euro inguru jasotzen dute. Hau da, estatuko langileen %46a 1.000 euro/hilero edo gutxiago jasotzen dute.

Euskal Herrian 2013. urtean gizarte bazterketa egoeran dauden familia kopurua 138.000 direla kalkulatu da, hau da, 360.000 pertsona. Haien artean, 46.000 familia (113.000) bazterketa egoera larrian daude eta le-

hentasunezkoa izan beharko litzateke horiei laguntza ematea (Foessa Fundazioaren Txostena, 2014ko urria). Hemen 16.000 ume haur pobrezia egoeran daude (Arartekoa, 2013ko martxoa).

Oraingo sistema ekonomikoak gaituak sortzen ditu eta gaituak euren finantzatzeko dute mendekotasun sistema hau.

Lan gabe geratzen den pertsonak, edo lortzen ez duenak, lehiakorke-riaren gizarte neoliberalen porrot egiten du; bere buruari botatzen dio errua eta lotsatzen da, gizarte edo sistema bera zalantzan jarri gabe. Autozapalkuntzaren sistema neoliberalen norberak bere buruari egozten dio errua. Autobortizkeria honek, za-

paldutako pertsona iraultzaile bihurtu beharrean, depresibo bihurtzen du.

Latinez "laborare" karga astuna pairatzea ere adierazi nahi du eta, laburbilduz, gaituak jasan behar izaten zituzten sufrimendu eta irainak laburbiltzen ditu. "travail", "trabajo" ... moduko hitz erromantzeak, latinezko "tripalium"etik datoz, gaituak eta askatasunik ez zeukaten pertsonen erabiltzen zuten uztarri modukoak. Gaztelarazko "el yugo del trabajo" delakoan esanahi horrek oraindik bizirik dirauela dirudi. Beraz, gaztelarazko "trabajo" edo "travail" ez da bere jatorrian giza jardueraren autonomia, baizik eta beste askatasuna galdu duten jarduerak.

Aurrekari hauekin enplegua sus-

tatzen duten politikak eskatzen jarraitu behar al dugu? Besteak beste mendekotasun eta sumisio egoera hauek sortzen laguntzen duten politikak? Bere burua abertzaletzat duen eragile politiko batek, bere herrirako askatasuna nahi duena, oraingo krisi ekonomiko betierekotik irteteko enplegu sorrera proposatzen jarraitu behar al du?

Lan egin behar dela, noski, argi dago. Gure oinarritzako betebeharrak erantzuteko egin behar dugu baina beste eredu batetik, talde garapeneraren ikuspuntutik, Euskal Herrian eduki genuen auzo-lanaren moldetik eta XXI. mendera egokitu beharko duguna.

Gasen Varela, Auzolan kidea



Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97




EGUNEKO MENUA
KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK
TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
Baserria - Jatetxea
Puntapax 8, Usurbil
943 36 91 39

www.artzabaljattetxea.com

Espainiako Gobernuari normala iruditzen zaio militarrek Usurbilgo kaxkoan barrena ibiltzea

Duela bi hilabete gertatu zen. Militar espainiarren hiru konboi ikusi zituzten Usurbilen. Zehazkiago esanda, Atxegaldetik gora, Udarregi ikastola ingurua zeharkatuz Arratzain aldera zihoazela ikusi ahal izan zituzten. Egurdiko 12:30ak aldera izan zen, hain zuzen ikasleak ikastolatik ateratzen ari ziren une beretsuan. Espainiako Gobernuaren esanetan, “Lurreko Ejertzitoaren unitateek egunero egiten dituzte adiestramendu eta instrukzio ariketak”. Eta horretarako, “lurralde nazionaleko edozein zonalde baliatuz, bestelako mugarik gabe, beti ere indarrean den legedia betez”. Hori da Xabier Mikel Errekondo Amaiurko diputatuari eman dizkioten azalpenak. Galderak egin eta hilabetera erantzun dio Rajoyren gobernuak usurbildarraren errekerimenduari. Artikulu honetan biak jaso ditugu: usurbildar diputatuaren idatzia eta Espainiako Gobernuaren erantzuna.

Errekondoren galderak

Madrilén, urriaren 15ean sinatuta dago Xabier Mikel Errekondoren idatzia. Amaiur parlamentari taldearen izenean, bost galdera luzatu zizkion Espainiako Gobernuari, eta galderekin batera erregu bat; idatziz erantzuteko eskaera.

- 1.- Zein zen operatiboaren helburua?
- 2.- Zein zen operatibo militarren zenbakia eta zein ezaugarri zituen? Zein zen erregimendua?
- 3.- Udalerriei zein Gipuzkoako Foru Al-



Xabier Mikel Errekondo, Espainiako Kongresuko sesioetako batean.

ESPAINIAKO GOBERNUA

“30 militar baino gutxiago aritu ziren ibilaldian eta Loiolako kuarteletik N 634 errepideko puntu jakin batera eraman behar zituzten lau ibilgailu”

dundiko arduradun instituzionalei operatiboaren berri eman al zaie?

■ 4.- Hezkuntza zentroen inguruan ibiltzeko agindu zehatzik ba al du Ejertzitoak? Eta herri kaxkoen inguruetan ibiltzeko?

■ 5.- Gobernuak ez al du uste ariketa hauek egin ordez, aurrekontu hori partida sozialak, hezitzaileak, osasunekoak eta asistentzialak hobetzerantz bideratu behar harko lukeela?

Gobernuaren erantzuna

Azaroaren 24an erantzun zion Espainiako Gobernuak Xabier Mikel Errekondori. Erredakzioan itzuli dugu Gobernuak emandako azalpena, modu honetan:

“Eskatu den informazioaren harira, Lurreko Ejertzitoaren unitateek egunero egiten dituzte adiestramendu eta instrukzio ariketak, ohiko prestakuntza programei jarraituz. Eta legalki ezarriak dituzten misioak betetzeko beharrezkoa zaien prestakuntza maila gorena mantendu dezaten. Horretarako, lurralde nazionaleko edozein zonalde baliatuz, bestelako mugarik gabe, beti ere indarrean den legedia betez. Kasu honetan, sendotze ibilaldi bat egin zen, 20 kilometrokoa.

30 militar baino gutxiago aritu ziren ibilaldian eta Loiolako kuarteletik N 634 errepideko puntu jakin batera eraman behar zituzten lau ibilgailu. Handik abiatzen zen oinezko ibilaldia eta bertatik egin zen pertsonalgoaren itzulera koartelera.

Ibilgailuak Usurbil herriaren ertzetik igaro ziren, hegoaldetik, beharrezko denbora baino ez zuten pasa lehorreratzearan, eta gauza bera ariketen ondoren ibilgailuetara igotzeko orduan.

Gipuzkoako komandante militarrek Gobernuaren Gipuzkoako azpidelegaritzari eman zizkion ariketen inguruko xehetasunak.

Espainiako Gobernuak Espainiaren segurtasunera bideratzen du Defentsa Ministerioaren aurrekontua, espainiar guztien ongizaterako zein progresorako ezinbesteko baldintza dena”.



Udarregi ikastolatik gertu ibili ziren militarrek. Argazkia: usurbileginez.com

Zubietako zabor edukiontziak, zigilatuta

Kutsadura iturri diren Zubietako zabor edukiontziak zigilatu ditu Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkartek, hilabete hauetan burutzen ari den kanpainaren baitan. “Zabor edukiontzia birziklatzera!” aldarripean, zabor edukiontzia gerra ideologikoa deklaratu diote. Guda udazken honetan hasi zuten, dantza batekin. Eta guda horren segida da, aurreko astean Zubietan egin zen edukiontzien zigilatzea. Ekimen honen bidez, “Donostiako udal ordezkariak, besoak gurutzaturik gera ez daitezzen eskatzen dizuegu, eta, gaur irudikatutako zigilatzeaz gogorarazi zuen ardura eta betebeharra dela zabor edukiontziak zigilatzea, kaleetatik ezabatzea”.

Ez da zubietarrek eskaera hau egiten duten lehen aldia. “Legealdi hau hasi zenetik behin eta berriz eskatu dio Zubietako Herri Batzarrak Do-



Donostiari zabor edukiontziak ezabatzea eskatu diote ekimen honen bitartez.

ZERO ZABOR ELKARTEA

“Erraustegiaren mehatxua deusezteko modurik onena ahalik eta zabor gutxien sortzea da”

nostiako udalari zabor edukiontziak kendu ditzala. Zabor edukiontziak hortik kendu behar dira, hobe esanda, kendu behar dituzte. Zabor edukiontzia kentzen denean gaikako bilketan jauzi ikusgarria ematen dela irakatsi baitugu esperientziak. Guk ez diegu

nola egin esango, soilik haien betebeharra bete dezatela eskatzen dugu, gaikako bilketa eraginkor bat berma dezatela, arazoa sortzeko bitartekoak ken ditzatela eta gizon-emakumeon eskubideak zain ditzatela”, galdegiten dute.

“Onena, ahalik eta zabor gutxien sortzea”

Eskubideok bermatzea, agintarien betebeharra dela diote. Eta oraindik, ingurune osasungarri batean bizitzeko eskubidea urratzen segitzen dutela. “Ez da asko gure lurretan errauste

planta bat eraikitzearen mehatxua gainetik kendu genuela, eta bada oraindik gure herria proiektu hori berrartzearekin mehatxu egiten duenik. Mehatxu hori deusezteko modurik onena ahalik eta zabor gutxien sortzea da”, gogorarazi dute Zubietatik.

Ahalik eta zabor gutxien sortzeko berriz, gaikako bilketa indartu behar. Administrazio boki bitan zatitua dagoen Zubieta, bitan zatitua dago baita hondakinak kudeatzeko sistemari dagokionean ere. Eta aldea nabarmena da. “Usurbilek administratutako erdian, hondakinak bilketa pertsonalizatu bidez biltzen diren erdian, %80ko gaikako bilketa daukagu. Donostiak administratutako erdian, zabor edukiontziak dauden erdian aldiz, %30aren bueltan. Herri bat, bi sistema, herri bat, bi emaitza”, diote Zubietatik. Donostiari zabor edukiontziok ezabatzea eskatzen diote.

Kezkatuta Eusko Jaurlaritzaren erabakiarekin

Eusko Jaurlaritzak Zubietako hondakinaren tratamendu plantari ukaturiko ingurumen baimen bateratuaz zuten iritzia plazaratu zuten abenduaren 4an, Eguzkik, Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkartek eta Gipuzkoako Erraustetaren Aurkako Plataformen Koordinadorak. Gogoan izan, Jaurlaritzak Zubietan eraiki asmo dagoen plantari baimena luzatzea ukatu diola eta horrek, azpiegituraren lanak atzera-

tzea eragingo du. Urtebetez behintzat bai, Donostiako Udalean aipatu hiru eragileetako ordezkariak eginiko agerraldian adierazi dutenez. Ondorioz, “urtebetez luzatuko du milaka gipuzkoarrek zabortege kutsagarrien inguruetan bizi beharra”.

Jaurlaritzaren erabakiaren aurrean haserre eta kezkatuta agertu dira eragileok. “Azken aldian, abantaila elektoralak bilatzeko ahaleginean, alderdi jakin bateko zuzenda-

ritza, guztion onerako lanean aritu behar luketen erakundeak instrumentalizaten ari baita, zertarako eta hondakinaren kudeaketa iraunkor baterako egingo dagoen plangintza oztopatze”, diote. Hondakinaren kudeaketa agintean daudenak higitzeko erabiltzen ari direla gaineratzen dute.

Ingurumen baimen bateratua ukatzeko Jaurlaritzak hartutako erabaki honek gain, gehiago ere etor

daitezkeela ohartarazten dute. Hauteskuendearako hilabete gutxi falta den honetan, “kalte handiagoa egin dezaketen erabaki sorta programatuta ote dagoen” susmoa dute.

Halere, oztopo guztien gainetik, zero zabor bidean sakontzeko deia egiten dute. “Iraganeko eredu kutsagarriak atzean utzi eta etorkizun hobeto bat eraikitzen segi dezagun”, luzatu diete gonbita, administrazio, herritar eta eragile politikoei.

URPI Leihook
urpileihook@gmail.com
☎ 943 50 80 95 • 688 81 93 33
nagusia 10 (atzek) USURBIL

Otar-Goxo
Elkargiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Josue
Igeltseritza
☎ 606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Patri Jatetxea
K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Kale Nagusiko udal lokal bat enkantean ipintzea erabaki du Udalak



Eraiki zenetik, ez du erabilpenik izan udal lokalak.

Enkantera atera du Udalak, Nagusia 37. Zenbakian kokaturiko "erdisotoko lokala". 2003an jaso zuenetik, ez zaio erabilpenik eman, eta aipaturikoa, enkanterara ateratzera erabaki du Udalak. "Legez, administrazio prozedurak ezartzen du Udal jabetzako salmentak enkantearen bidez egin beharra eta, hau horrela izanik,

irteera prezioa hobetzen duen eskaintza onenari izendatuko zaio lokala", ohartarazi du Udalak.

Lokala ikusteko, abenduaren 19an ostirala

Interesdunek, lokala ikusteko aukera izango dute abenduaren 19an. Horretarako ordea, aurrez hitzordua eskatu beharko du udaletxera

deituta: 943 371 951.

Hauek dira lokalaren ezaugarriak:

- Helbidea: Kale Nagusia, 37, erdisoto 2a.
- Azalera: 47,99 m²,
- Irteera prezioa: 25.546,99 + BEZ (%21).
- Eskaintzak aurkezteko epea: 20 egun, GAO-n argitaratzen denetik.

Langileak behar dituzte Gabonetako Haur Parkean

Aurten ohi baino beranduago, urtarrilaren 2tik 4ra Udalak Oiardo Kiroldegian antolatu duen Gabonetako Haur Parkerako langileak behar dituzte. Interesdunek, jolastoki erraldoia kudeatuko duen Keima enpresara bideratu ditzakete kurrikulumak, abenduaren 19a baino lehen. Helbide honetara: keima@sartu.org

Lan deialdian parte hartzeko ezinbestekoa izango da begira-

le titulua izatea eta baita EGA edo baliokidea den titulua. Egin beharreko lana? Argi denez, Gabonetako Parkean 2-12 urte arteko haur eta gaztetxoekin lanean aritzea hiru egunez. Gune ezberdinez osatuko da, eguberrietako oporretan Kiroldegia aisialdi eremu bihurtuko duen jolastokia. Dinamizatze eskenatokia, jazz dance, esperimentuak egiteko zientziaren karpa, berrerabilera eta birziklapena sustatzeko tailerra, makillatzen ikastekoa, 2-6 urte

artekoentzako ludoteka, puzgarriak...

Guztia, haur eta gaztetxoek primeran pasatzeko.

Jolastoki erraldoia Kiroldegian

- Noiz: urtarrilaren 2tik urtarrilaren 4ra.
- Ordutegia: 11:30-13:30, 17:00-20:00.
- Tokia: Oiardo Kiroldegia.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Elkarte arteko mus txapelketako finala

Asteburuan jokatu da, Elkartea Arteko XVII. Mus Txapelketako finala. Zubietako Joko Garbi Elkartean lehiatuko dira onenak, larunbat honetan, abenduaren 13an, 16:30ean hasita.

Finalera heldutakoak

Atariale Elkartea, Aginaga. Jose Agustin Ugarte "Txantxon" -Joxe Javier Manzidor "Jota". Ane Manzidor-Imanol Esnaola.

Partehartzaileak

Andazpe: Pari-Aixarna; Gillermo Tapia-Manuelto Unanue. Ibai Ondo: Jon-Txetxu; Hilario-Juanjo. Joko Garbi: Oskar-Mikel; Iñaki-Andres. Mahaspildegi: Joxe Mari-Koldo; Martxelo-Antton Bordagaray. Peña Pagola: Justo-Esteban; Joxe Ramon-Paulino. Eguzki: Antonio Lozano-Gabriel Sánchez; Argimiro Márquez-Fructuoso Plaza. Erroizpe: Arkaitz Lizeaga-Miroitz Arrospide; Igor Matxain-Jon Linazisoro. Aitzaga.

Eskertza

Urdaira Sagardotegia, Aginaga Sagardotegia eta Hotela, Bordatxo Taberna, Patri Jatetxea, Aialde Berri Sagardotegia, Araeta Sagardotegia, Barazar Ostatura Jatetxea, Iruin Sagardotegia, Alamanegi Jatetxea, Alorrenea Sagardotegia, Aratz Jatetxea, Saizar Sagardotegia, Txirristra Taberna, Maykar Jatetxea, Olarrondo Jatetxea, Txapeldun Taberna, Kentuene Jatetxea.


ARRANDEGIA PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK


EROSKI city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

#Kilometroak15 laguntzeko, 'Gure Zozketa' ekimena martxan

60.000 euroko saria dago jokoan. Dirutza hau zuetako edonorena izan liteke, baldin eta #Kilometroak15 ekimena laguntzeko martxan jarri den Gure Zozketako errifak erosten badituzue. Orioko Kilometroak edizioan arrakasta izugarria izan zuen Gure Zozketa antolatu dute Usurbilen ere. Errifak saltzera eta erostera gonbidatzen gaituzte, gogorarazten dutenez, "banatzen dugun Gure Zozketako txartel bakoitzeko, 5 euro geureago gattunk!".

Gure Zozketa. Zertan datza?

#Kilometroak15: Gure Zozketa Usurbilen, Gipuzkoan eta Euskal Herri osoan zoriontasuna banatuko duen zozketa izango da. Batetik, Usurbilen, lortuko diren baliabide ekonomikoen bidez Udarregi Ikastolan garatzen ari garen pedagogia berritzailean sakonduko dugulako, besteak beste, ikastolako eraikin berriaren mailaguan (1,5 milioi euro zor dizkiegu bankuei) zati bat ordainduz. Bestetik, ikastolen mugimenduaren, euskararen eta euskal nortasunaren aldarria lau haizetara zabalduko dugulako. Eta azkenik, zenbaki saridunari, aurreko lorpenen bidez zoriontasuna emateaz gain, 60.000 euroko saria banatuko diogulako.

Orion antolatu zuten estreinakoz. Usurbilen esperientzia errepikatuko bada, Orioko emaitza onengatik izango da ezta? Kilometroak-en finantziazioan zer nolako eragina du ekimen honek?

Orioko Herri Ikastolak jaiaren inguruko gogoeta integral bat burutu ondotik etorri zen ekimen hau. Azken urtetan, Kilometroak jaiaren bidez lortutako diru sarrerak kontsumoari estuki loturik zeudela ikusirik eta hauen beherakada nabarmena izanik, euskararekiko, euskal nortasunarekiko eta ikastolen mugimenduarekiko ekarpen ekonomiko kontziente eta ardurasuagoa lortuko zen ekimen bat sortzea erabaki zuten. Hau izan zen hausnarketaren abiapuntua eta emaitza, Gure Zozketa ekimena. Ekimen honek arrakasta itzela izan du Orion, izan ere, 55.000 zozketa-txartel inguru banatu baitituzte Euskal Herri osoan. Zoriontzekoa da oriotarrek egindako ekarpen eta auzolana. Kilometroak-en finantziazioan ere izan du eragina, noski, zutabe ekonomiko nagusienetako bat bilakatu baita, nagusia ez esatearren. Abiapuntua, prozesua eta emaitza ikusirik, Usurbilen ere ekimen arrakastatsu honi jarraipena ematea erabaki dugu, oriotarrek lortutako emaitza hobetzeko gogoz eta ilusioz. Seguru gaude lortuko dugula!



'Gure Zozketa' ekimena "Euskal Herria osoan zoriontasuna banatuko duen zozketa izango da".

LAGUNTZA PREMIA

"Honen bidez, salmenta aktiborako osatzen ari garen taldea indartu nahiko genuke. Animatzen denak Udarregi Ikastolarako idazkaritzan eman behar du izena"

Orioko Kilometroak ekimeneko funtzionamendu bera izango du Usurbilgo Gure Zozketak?

Orioko Kilometroak ekimenean garatutako indarguneak errepikatu eta beraien baloraziotan topatutako ahulguneak hobetzen saiatuko gara. Ekimenak ez du bilakaera handirik izango, beraien arrakasta izanik ekimena egonkortzea baita lehen helburua. Dena den, izango du usurbildarron ukitua.

Errifon salmenta zer modutan bideratu asmo duzue?

Gure Zozketako txartelen salmentarako, gaur gaurkoz, lau bide nagusi jorratuko ditugu. Batetik, Gipuzkoako saltoki, farmazia, sagardotegi, jatetxe edota tabernetan eskuragarri jarriko ditugu. Bestetik, Gipuzkoa osoko festaz festa, azokaz azoka eta ikastolaz ikastola ere salmenta aktiboan jardungo den talde bat osatzen ari gara, arropa salmentan irteeretan dabilzan taldeekin batera. Internet bidez ere, kilometroak.eus atarian egongo da txartela eskuratzeko aukera. Azkenik, eta Orion ekimen honen arrakastaren giltza izan den bidea jorratuko dugu, hau da, hezkuntza-komunitate osoaren konpromisoa eta inplikazioa. Horretarako, Orioko Ikastola-

ren eredua jarraituz, Udarregi Ikastolan ere, hezkuntza komunitate osoaren laguntza beharrezkoa izango da.

Orioko emaitza ikusirik (familiako nahiz langileko salmentarako 50 txartel banatu zitzairen), Udarregi Ikastolako familia eta langileei zozketa-txartelak banatzeko konpromisoa hartzeko gonbita luzatzen diegu.

Herritarrona izango da errifak erosi, baina baita saltzeko ardura. Salerosketarako laguntza beharko da ezta?

Esan bezala, ekimen hau arrakastatsua izan dadin, Kilometroak 2015eko beste arlo guztietan bezalaxe, herritarron konpromisoa eta inplikazioa beharrezkoa izango dira. Honen bidez, salmenta aktiborako osatzen ari garen taldea indartu nahiko genuke, horretarako prestutasuna duenak, Udarregi Ikastolarako idazkaritzan izena ematea nahikoa delarik. Salmenta aktiboan jardun ezin duenari aldiz, ekimena inguruan zabaldu eta zozketa-txartelak eskuratzera bultzatu nahi dugu.

Besterik?

Aipatu dugun guztiagatik eta batez ere, banatzen dugun zozketa-txartel bakoitzak 5 euro geureago egiten gaituelako, ekimen hau babestu, bultzatu eta ekarpena egitera gonbidatu nahi ditugu herritarrak. Izan ere, zoriontasuna banatzeko zoriontasunez, umorez eta irrifar goxo batez garatuko dugun ekimena izango baita.

Giro ederrean txartelak saltzera animatzen bazarete, aurrera, laguntza oro ongi etorria izango da eta!

Igandean, Santo Tomas Azoka

Hamaiketako koxkorra egiteko jan edana, NOAUA!ren postua, Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saioa, kantu-jira berezia... Giro bikaina aurkituko duzue abenduaren 14ko Santo Tomas Azokan. Baserritar jantziekin gerturatu frontoi ingurura. Ekitaldiok izango dituzue:

Goizean zehar:

- Sagardo-babarrun dastatzea.
- Txistorra eta taloak.
- Udarregi Ikastolako ikasleen postua.
- Alkartasuna Kooperatibaren postua.
- NOAUA!ko postua: produktuen salmenta, bazkidetza egiteko aukera, argazkia atera eta Errigorako saskia irabazteko zozketa...



Aurten ere, sagardoa banatuko da bisitarien artean.

11:30 Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saioa frontoian. "Baserrian bizi denak badauka hamaika zeregin. Noizik eta behin ezustekoak ere izaten dira. Ba al dakizu zer gertatu zitzaion Martin artzainari?"

12:00 Kantu jira: Sohütako ikastolaren aldeko kanpainari bukaera emateko.

Santo Tomaseko kantu-jira Mikel Laboa plazatik abiatuko da, Kli-k Itsasuko txarangarekin batera.

13:00ak aldera:

- Zuberoako ikastolak lagun-tzeko elkartasun kanpainaren amaiera ekitaldia.
- Errigora saskiaren zozketa.
- Sagardo eta babarrun lehiaketako sari banaketa.

14:30 Herri bazkaria:

Udarregi Ikastolako jangela berrian, Ziburuko Kaskarotenea ikastolaren alde. Prezioa: 20 euro. 12 euro, 12 urtetik beherakoentzat.

■ Txartelak: Txiribogan, Aitzagan eta Txirristran salgai. Txartela erosteko azken eguna: abenduaren 11.

Elkarlanean: NOAUA! Kultur Elkarte, Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak, Nafartarrak, Kantu Taldea.

Joseba Zuloaga: "Etxerako, familiarentzat ekoizten dugu sagardoa"

Aurreko bi edizioetan aurkezturikoen artean, sagardo onena Joseba Zuloaga eta bere etxekoena izan zen. Iazkotik, sagardo suabea izan zela nabarmentzen du. Aurten ere aurkezteko asmotan da. Hirugarren txapela irabaziko duen, igandeko Santo Tomas Azokan jakingo da.

Non ekoizten duzue etxerako sagardoa?

Joseba Zuloaga: Santuenean baju batean dugu barrika. Etxerako, familiarentzat egiten dugu.

Noiztik dator etxeko sagardoa egiteko ohitura, tradizio familiarra duzue?

Bai. Lehen baserrian ekoizten genuen, eta aita eta elkarrekin etxerako adina egiten dugu gaur egun. Lehendik datorren ohitura bat da. Gure kapritxora egiten dugu.



Sagardoegileen lehiaketa egiten da Santo Tomas Azokan. Aurreko bi edizioetan Joseba Zuloaga nagusitu da.

Nolakoa dator aurtengo sagardoa?

Hori gero ikusi behar. Orain kupelean dago eta.

Urte batzuk bai Santo Tomas azokan parte hartzen duzuela. Nolatan animatu zineten?

Urte batzuk bai. Saltsa pixka bat jartzeko eta ikusiz ze sagardo dugun, ze mailatan ibil-

tzen garen jakite aldera hasi ginen parte hartzen.

Iazko sagardo onena zuena zen. Zer zuen txapela irabazteko?

Sagardo suabea zen. Sagardo bera egiten dugu. Hala suertatu zen.

Aurten aurkezteko asmorik bai? Ahal badugu behintzat bai.

Zer lan eskatzen du etxeko sagardoa ekoizteak?

Mekanismo txikiekin egiten dugunez, denbora asko behar du. Saio askotan egiten dugu, kupel koxkor bat egiteko. Ez gara kolpean litro asko egiten dituzten sagardotegi handiak bezala. Guk kopuru txikian ekoizten dugunez, lanabes txikiak ditugu.

Zaindua ezta?

Horretan saiatzen gara. Beti bezala saiatu eta ateratzen dena ateratzen da.

Etxerako ekoizpen lan honi segida emango al zaio etorkizunean?

Dugun denboraren arabera izango da hori. Denbora badugu bai. Denbora asko kentzen du eta lan honek.

Animatu herritarrak azokara...

Giro ona egoten da. Igande goiza aprobetxatzeko festa giro polita.

Manuel Aizpurua: “Iaz ez nuen espero eta txapela etorri zen”

Aginagako Ibai-Ertz etxekoa. Urtez urte hobetzen doa. Hirugarren saria emana diote, bigarrena baita, eta iaz, Santo Tomas Azokako babarrun lehiako txapela irabazi zuen Manuel Aizpurua. Zer ote du bere babarrunak, epaimahaiak hain begi onez ikusteko? Afizioz etxerako babarruna edota sagardoa ekoitzi ohi den herritarrak arrastoan jarri du NOAUA!.

Etxerako ekoizpenean aritzen zara?

Manuel Aizpurua: Denbora askoz errazago pasatzen dut hartara. Jubilatua nago. Etxerako baratza lanean aritzen naiz. Hegazti batzuk, oilasko batzuk etxerako hazten ditut. Arto pixka bat, babarrun pixka batekin ekoizten dut.

Ze kopurutaz ari gara?

Aurten 32 kilo babarrun. Baina oso garrantzitsua, arto tartean askoz kalitate hobeagokoa izaten da bestela baino. Babarruna egin eta tartean arto bat edo bi jartzen dizkiot. Aurreko udaberria oso euritsua izan zen eta babarrunari ez zaio hori asko gustatzen. Babarrunari euria ere gustatzen zaio, baina giro epela. Iaz alderantziz izan zen. Iazkoa ez zen babarrun urte ona izan. Hobeak izan dira.

Iaz halere, azokako epaimahaiak erabaki zuen zuena zela babarrun onena. Ze berezitasun zituen?

Lehenengo urtean kasualitatez aurkeztu nintzen. NOAUA!n irakurri eta babarrunak, kolore ona, berdintsua behar zuela eta saiatu nintzen hala prestatzen. Aurretik, bi urteetan, aurrenekoan hirugarren gero bigarren geratua naiz.



Iazko txapelduna Manuel Aizpurua izan zen babarrun lehiaketan.

MANUEL AIZPURUA

“Aurreko udaberria oso euritsua izan zen eta babarrunari ez zaio hori asko gustatzen”

Urtez urte hobetzen?

Iaz ez nuen espero eta txapela etorri zen, batere esperantzarik gabe. Hogeita gehiago lehiakide ginen eta egokitu.

Azokan ikusgai izaten dira ekoizle onen babarrunak. Inork ez daki babarrun sorta bakoitzaren ekoizlea nor den. Zuk zeurea antzematen duzu ordea?

Hainbeste aldiz eskutan ibili eta igurtzita, ikusten da.

Aurtengoari begira aurkezteko asmorik?

Bai badut asmoa. Horretan ari naiz. Babarruna eta sagardo txapelketan parte hartzen dut.

Babarruna aukeratzeari denbora dezente eskaintzen diozu ezta?

30 kilo babarrun horiek apartatu egin behar dira denak. Apartatzen hasi eta aleen artean, polita ikusten den hura ere apartatu egiten dut.

Aurten, ardura gehiago babarruna aukeratzean?

Aurten ere iaz bezala. Egokitzten bada ondo eta bestela besteren batek izango du txapela.

Sagardoa ere aurkeztu izan duzu?

Sagardoarekin ordea ez dut

asmatzen. Baina ekartzen dut. Etxerako egiten dugu barrika koxkor bat urtero. Handik ekartzen dut.

Aurtengo sagardoa nolakoa dator?

Azkar ikaragarri. Udazken beroa izan da, eta jada botilartzeko moduan dut. Ia datorren ilberan botilaratzen dudan.

Santo Tomas azokan zergatik hasi zinen parte hartzen?

Alabak animatuta hasi nintzen. Berak gogorarazten dit urtero. Eta urtero proba egingo dugula eta hala ibiltzen gara.

Urtez urte nabarmen igo da ekoizle onen parte hartzea. Zergatik?

Lan hauetan ari denarentzat bere ilusioa ematen du, horregatik normala da animatzea.

Segiko ote dio hurrengo belaualdiak zuek egindako lanari?

Baten batzuk baietz uste dut. Geroz eta gehiago agian. Baratza kontuotan jendeak heldu beharko diola pentsatzen dut.

Igandean frontoian izango zarete. Herritarrei zer esan azokara gerturatzeko?

Oso festa polita egiten da. Usurbilen hainbeste festa izaten da gainera, ez du askorik behar jai egiteko.

Atera NOAUA!rako argazkia eta irabazi otar eder bat

NOAUA! Kultur Elkartek bere gune propioa izango du igande honetako azokan. Kultur Elkartek urteotan plazaratu izan dituen produktuak eskuragarri izango dituzue. Oraindik NOAUA!kide ez zaretenok, bazkietza egiteko aukera izango duzue

postuan bertan. Eta gehiago ere bada. Postua, “photocall” modukoa izango baita. Zuek etorri eta argazki bat aterako dizuegu. Ekimenean parte hartzen duzuen guztion artean adi; Errigora ekimeneko otar bat zozketatuko dugu eta. Nafarroa

hegoaldeko euskalgintza bultzatzeko, Errigorakoen saski bat erosi zuen NOAUA! Kultur Elkartek azaroan. Otarra, “Photocall”era gerturatu eta argazki bat ateratzen duzuenon artean zozketatuko dugu igande eguerdian.

#Kilometroak15 ekimeneko salmenta postua



Igandean postu bat ipiniko dute Santo Tomas azokan.

Santo Tomas Azokan jarriko diren postuen artean, #Kilometroak15 ekimeneko salmenta gunea aurkituko duzue.

Adin tarte nahiz estilo guztietako arropa salgai abenduaren 14an. Gogoan izan bestal-

de, #Kilometroak15 ekimeneko denda zabalik dagoela jada, ordutegi honetan:

- Asteartetik larunbatera: 10:30-13:00.
- Astelehenetik ostiralera: 17:00-20:00.

Zuberoako ikastolen aldeko elkartasun kanpaina amaiera



Zuberoako ikastolen aldeko diru bilketa egin ohi du Nafartarrak taldeak.

Zuberoako ikastolak laguntzeko Nafartarrak taldekoek bideratu duten elkartasun kanpaina igandean amaituko da, Santo Tomas azokan. Kantu-jira berezia ospatuko da eguerdi partean, Kli-k Itsasuko txa-

rangarekin. Eta segidan frontoian, elkartasun kanpainaren amaiera ekitaldia. Azoka ondorenean, 14:30erako bazkaria antolatu dute Udarregi Ikastolako jangela berrian. Txartelak salgai dituzue, Txiribogan, Aitzagan eta Txirristran.



Hator, hator...

Alkartasuna

Usurbilgo Baserritar Kooperatiba

alkartasuna@usurbil.com

www.alkartasunausurbil.com

Atallu industrialdea 26

☎ 943 361 114

Danbolina



Abarkak, txapelak, galtzetinak ...



Pazko loreak



Gabonetako otarrak



Ardoak



Egutegia



Asteburu honetan, Jostailu Azoka

Jostailuak erosi eta bota beharrez, trukatu eta berrerabil-tzea. Horixe sustatu nahi du Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarteak larunbat honetan frontoian ospatuko den truke azokaren bidez. Norberak eramandako jostailua azokako beste batekin trukatzeko aukera egongo da.

Azokarako materiala utzi nahi duenak; ostegun eta ostiral honetan Sutegira gerturatu materialarekin. Gogoan izan, utzitako jostailuek osorik egon behar dute, DVD eta antzekoek jatorrizkoak izan beharko dute, materiala doan eman beharko da eta, trukean, azoka egunerako beste jostailu batengatik aldatzeko txartela eskuratu ahaliko da. Azoka egunean jostailuren bat trukatu nahi duen 8 urtetik behar-rako haurrak arduradun batekin parte hartu beharko du ekimenean.



Larunbatean, eguerdiko 11:00etan hasiko da Jostailu Azoka.

Abenduak 11 osteguna,
abenduak 12 ostirala

17:00-19:00 Jostailu azokarako bil-keta, Sutegiko erakustaretoan.

Abenduak 13, larunbata

11:00-13:00 VIII. Jostailu Azoka frontoian.

Antolatzailea: Hitz Aho.

Abenduaren 19an, ikasleak kantari

Gabonak ate joka ditugu. Eguberriez gozatzen hasten lehenak ikasleak izango dira. Abenduaren 19a, azken klase eguna izango dute ikasle eta irakasleek.

Eguberri giroan, kantuan eta txistor jan eder baten bueltan ospatuko dute eguna, Udarregi Ikastola, eta Zubieta zein Aginagako Eskola Txikiek.

Madalena tailerra

Gaztelekuan

DBH 1 taldekoei zuzenduriko ekimen honekin abiatuko du Gaztelekuak gabonetarako antolatu duen hitzordu sorta. Larunbat honetan, 16:00etan. Abenduaren 20an, film bat proiektatuko dute Gaztelekuan, 15:30ean DBH1 taldekoentzat.

ABENDUAK 20, LARUNBATA 19:30TAN SUTEGIN

SECCION OFICIAL

62

60th ANNUAL INTERNATIONAL FILM FESTIVAL DE SAN SEBASTIAN

OFFICIAL SELECTION

BFI LONDON FILM FESTIVAL 2014

Official Selection

Zurich Film Festival

LOREAK

IRUSGIN ETA MORIARTIAK: KORTXOPIKIN BAY ETB. TVE ETA EUSKAL TELEBISIAREN PARTIDETZAK: EUSKO JAURLARITZA ETA JCAAREN LAGUNTZAREKIN.

ITZIAL ITUNO - NAGORE ARANBURU - ITZIAL AIZPURI - JOSEAN BENGOTXEA

ARGAZKIA: JAVI AGIRRE ERAUSO. BATERORRENDI: MICKA. PASCAL GAIGNE. MONTAIA: RAUL LOPEZ. ZUZENDUAK: JONNIA. IRAMI DIEZ. SORRITUEKIN: XANTI SALVADOR.

ZUZENDUAK: MIKEL SERRANO. JANTZAK: SAIDA LARA. MONTAIA: AINHOA ESKOSABEL. ILLA: APARNEKETA. OLGA CRUZ. ZUZENDUAK: LAGUNTZAK: TELMO ESNAI.

ERAKUTZITZAK: ANDER SISTIAGA. ERAKUTZITZAK: XABIER BERZOSA - INIGO OBEJO - INAKI GOMEZ. ERAKUTZITZAK: AITOR ARREGI - FERNANDO LARRONDO.

GEZAK: JOSE MARI GOENAGA - JON GARANO - AITOR ARREGI.

ZUZENDUAK: JON GARANO - JOSE MARI GOENAGA.

eloreakfilm

https://www.facebook.com/loreak

www.loreakfilm.com

Sarrera: Bazkideek 3€tan NoauaIn. 7€ leihatilan (Aldez aurretik 6€ Bordatxon, Lizardin eta NoauaIn).

Euskara ahotan hartzea, 2015erako asmo onen artean

Baditugu euskaldundu beharreko eremuak, geure eguneroko bizimoduan. Bikote lagunarekin hitz egiterakoan, kafea eskatzerakoan, bizilagunen bilertan, erosketak egiterakoan, ez gara euskaraz guztiz bizi oraindik. Hala islatu zuten hainbat herritarrek, Euskararen Egunean frontoian jarri zen mural handi batean. Bertan, amaitzearen urte honetan euskarari lotuta egin ditugun bekatuak aitortzeko aukera izan zuten eta 2015erako asmo onak idaztekoa baita.

Asmo onen artean, euskaraz bizitzeko nahia, "euskaraz, jaio, bizi eta hil" zioen mezu batek, euskara ahotan hartu eta geure ama hizkuntza bizirik mantentzeko gonbitak nagusitu ziren. "Euskara ez da galtzen hitz egiten badugu", gogorarazten zuen mezu batek.

Herritarrek abenduaren 3an zehar idatzi zituzten mezueta batzuk dira. Jaia eta aldarrikapena



Orain arte ikastetxeetan bideratzen ziren ekimenak, herrira zabaldu dira aurtan.

uztatu zituen Euskararen Eguna Usurbilen. Herritarrek osaturiko bekatu eta penitentzien muralaz gain, haur eta gaztetxoentzat jolasak antolatu ziren, karaokea, kantut-dantza jira berezia eta gaztain jana iluntzean... Ekimenez beteriko eguna. Orain arte, ikastetxeetan bideratzen ziren ekimenak, herrira zabaldu da aurtan.

.eus aroan gara

Abenduaren 3a gorritz markatua

du Udalak bere lan egutegian. Euskararen Eguna jai eguna izaten dutenez, liburutegia, Potxoenea, edo udal bulegoak itxita zeuden aurreko asteazkenean. Egun horren bueltan gainera, Udalaren web orriaren domeinua euskalduntzeko urratsa eman zuen Udalak. Oraindik pixka batean usurbil.net helbideak aktibatuta jarraituko duen arren, usurbil.eus erabilgarri duzue jada. NOAUA!k ere laster izango du mar-txan, noaua.eus

Lanbide Heziketak Kalitate-Berrikuntza saria jaso du

Espainiako Gobernuak Hezikuntza Ministerioak Lanbide Heziketa munduan banatzen dituen Kalitate eta Berrikuntza sarietako bat jaso du Usurbilgo Lanbide Heziketak. Zehazkiago esanda, hirugarren saria. "Saria Usurbilgo Lanbide Eskolak aurkeztutako "Helburu didaktikoa zein funtzionala duen Multienergia Galdara Gela"ri egokitu zaio, proiektu berritzaileen atalean", berri eman dute Lanbide Eskolatik. Madrilgo Hezikuntza Ministerioan ateratako irudian dituzue sarituak. Usurbilgo Lanbide Eskola ordezkatzeko, Patxi Vaquerizo zuzendaria eta Antonio Gil proiektuaren partaidea.



Patxi Vaquerizo, diploma eskuan.

Gabonetako lehiaketa artistikoa Santuenean

Zuhaitz txikiak, kartelak, postalak... Eguberriekin lotura duten artelanak sortzeko txapelketa antolatu dute Santuenean, 3-14 urte arteko haur eta gaztetxoentzat. Pintura, buztina, papera, kartoia... Edozein teknika baliatu ahalko da sormen lanerako. Antolatzaileek ohartarazi dutenez, "material birziklagarriak erabiltzea baloratuko da". Kontuan hartzekoa; artelanak ludotekan bertan landu beharko dira, ezingo dira etxean egin.

Haur eta gaztetxoek sorturiko artelanak, beranduenez, abenduaren 18an 19:00etan aurkeztu beharko dituzte ludotekan. Biharamunean, hilaren 19an, 16:00etatik aurrera auzo elkarte egoitzan bisitatu ahalko den erakusketa batean jarriko dituzte ikusgai.

Txapeldunak nortzuk diren egun berean emango dute ezagutzera, 3-7, 8-11 eta 11-14 urte tartetean. Irabazle eta parte hartzaileentzako sariak izango dira.

Santo Tomas festa

Gabonetako lehiaketa artistikoaren sariketa, abenduaren 19an ospatuko da. Santuenean, Santo Tomas festa ospatuko duten egun berean:

Abenduak 19, ostirala

■ 17:30 "Asier Kidam Magoa", haurrei zuzenduriko ikuskizuna Santueneko frontoian.

■ Ondoren, Santuenea Elkartean ikusgai egongo diren haurren artelan erakusketa eta sariketa.



Asier Kidam magoa Santuenean izango da.

■ Gero, txistor jana.

Antolatzailea: Santuenea Auzo Elkartea.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ESKAIOLA eta PLADUR
Joxean Elorza
699426042
USURBIL

Pinturas Ion
KANPOALDEKO FATXADAK ETA BARNEALDEAK (PISUAK, LOKALAK...)
ENPRESETAKO MANTENIMENDUAK

690 99 05 58
ionf81@hotmail.com

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Pirritx eta Porrotxen ikuskizun berrirako sarrerak salgai



Abenduaren 20an larunbata, bi saio eskainiko dituzte Oiardo kiroldegian: 16:00etan lehena, 18:30ean bigarrena.

Txo Mikmak Txikia ikuskizun berriarekin bueltan datoz Pirritx, Porrotx eta Marimotots Usurbila. Emanaldi bikoitza, abenduaren 20an, 16:00etan eta

18:30ean Oiardo Kiroldegian, urtero moduan Argiaren Lagunak taldekoek antolatuta. Eta #Kilometroak15, Udarregi Ikastola eta Ikastolen Elkartea laguntzaile dituztela. Ikuskizu-

nerako sarrerak aurrez salgai izango dituzue Marije arropa dendan eta Bordatxon, 7 euroren truke. 8 eurotan egunean bertan. 12 hilabete arteko haurrek sarrera doan.

Arrasateko Akordeoi Lehiaketatik zilarrezko domina banarekin itzuli ziren

Aurreko asteburuan jokatu zen Arrasateko Akordei Lehiaketa. Zumarte Musika Eskolako ikasle hauek hartu zuten parte: Gorka Arroyo Iribar, Maddi Zuloaga Camarero, Intza Apezetxea Sarasola, Imanol Iribar Rodriguez. Domina bana irabazi zuten.

HASTAPENA A

Abestia: *Sur la berge* (Astier & Baselli).

Zumarteko ordezkariak: Gorka Arroyo Iribar, Maddi Zuloaga Camarero.

HASTAPENA B

Abestia: *Circle polka* (C. Mahr). Zumarteko ordezkaria: Intza Apezetxea Sarasola.



Abenduaren 6an aritu ziren, Arrasateko Amaia antzokian.

HASTAPENA C

Abestia: *Frantxua* (F. Arrabit). Zumarteko ordezkaria: Imanol Iribar Rodriguez.

Abenduaren 6an aritu ziren Zumarte Musika Eskolako ikasle denak, Arrasateko Amaia antzokian.



Santa Zeziliko bideoa, noa.com orrian ikusgai



Seme-alaben sexu hezkuntza hizketagai Aginagan

Nerea Santxo, Bitxigorria Sexologia zerbitzuko zuzendariaren eskutik, hitzaldia, abenduaren 18an 18:00etan Aginagako ludotekan. "Seme-alaben sexu hezkuntza: esku-hartzeko irizpideak" izango da, San Praixku Guraso Elkartek antolatutako ekitaldiko hizketagaita.

Eskubaloia

Oiardo kiroldegian

Abenduak 13, larunbata

9:15 Benjaminak LH3 topaketak
10:00 Benjaminak LH4 topaketak
10:45 Alebin neskak:
Udarregi 5B-Udarregi 6B
10:45 Alebin neskak:
Udarregi 6C-Udarregi 6A
11:45 Infantil neskak:
Udarregi B Usurbil-Aiala A ZKE
13:00 Infantil mutilak:
Udarregi Usurbil-Tolosa C.F.B.
16:00 Kadete neskak:
Usurbil KE A-Aloña Mendi KE B
17:30 Senior neskak:
Usurbil K.E.-Egia Arrano
19:30 Senior mutilak, 1. Nazional taldea: Ucin Aluminio
Usurbil-Quiron Askartza

Abenduak 14, igandea

10:00 Jubenil mutilak:
Usurbil K.E.-Aloña Mendi K.E.

11:30 Senior mutilak, 1. Territoriala: Usurbil K.E.-Egia Kata Taberna
1. nazional mailako taldea: Urdaneta-Ucin Aluminio Usurbil

Futbola Haranen

Abenduak 13, larunbata

10:00 Alebin mutilak:
Udarregi 6B-Landaberri 6B

11:30 Infantil mutilak:
Usurbil-Kostkas

Abenduak 14, igandea

10:00-13:00 Futbol Eskola:
Usurbil F.T.-Orereta Kafea, F.C.

Mendi irteeretara, aseguratuta aurrerantzean



Ezbeharrik gertatuko balitz, mendizaleak eta taldea bera babestuta egongo lirateke.

2015. urtetik aurrera, Gipuzkoako beste elkarte asko bezala, Andatza ere mendizale federatuen taldea izango da. Orain arte, bilgunetik antolatzen zituzten irteeretara, federatu nahiz federatu gabeak joan zitezkeen. Aurrerantzean aldiz, diogun moduan, mendiko aseguruia izatea ezinbestekoa izango da txangoetan parte hartzeko.

Orain arte ez da ezbehar larririk gertatu, eta eskerrak, baina etorkizunean halakorik jazotzen bada ere, mendizaleak eta taldea bera babestuak egotea bultzatu nahi dute modu honetan, bai Andatzatik, baita Gipuzkoako mendi taldeen federaziotik ere. Federaziotik jasotako deialdiari kasu eginez ari da hain zuzen Andatza M.K.T., mendizale guztiak federatzera aholkatzen.

"Orain arte irteeretan federatu eta federatu gabekoak onartzen genituen. Federatu gabe zirenei mendi aseguru berezi bat egiten zitzairen. Federaziotik taldeoi deitu ziguten ohartaraziz, istripu handi bat egonez gero, ardura handia dagoela. Gu musutruk aritzen garela ikusirik, ardura handiak dira horiek. Horregatik uste dugu mendizaleak federatzea sustatu behar dugula", diote Andatza taldekideak.

Mendizaleak federatzea bultzatu nahi dute

beraz. Datorren urtetik aurrera antolatuko dituzten irteeretan, mendi istripuetarako aseguruia izatea ezinbestekoa izango da. Bai mendizale bakoitza, baita antolatzaileak ere edozein ezbeharren aurrean babestuak egon daitezkeen. "Mendira joatean istripuak izateko arriskua beti hor dago. Beti pentsatzen dugu guri ez zaigula gertatuko. Min hartzean, orduan jabetzen zara mendi aseguruia behar dela. Antolatzen ditugun irteeretara datorren jendea ere aseguratua egotea nahi dugu, istripua ere gertatuko balitz, babestuak egoteko. Eta ez bakarrik gurekin ibiltzeko. Azkenean mendian beti dago min hartzeko arriskua. Ez bakarrik Pirinioetan, Andatzen bertan ere gertatu liteke erreskateren baten beharra izatea. Mendian ibiltzeko ohitura duen ororentzako da gomendagarria mendi aseguruia", gogorarazten dute Andatzatik.

Aseguru modalitateak

Haur, gazte, heldu nahiz 65 urtetik gorakoek eskura dezakete federatu txartela. Denentzako derrigorrezkoak diren oinarritzako estaldura du mendi aseguruak. Eta hortik aurrera, aukeran ditu aseguru gehigarriok; Pirinioak, mundu mailako irteerak, espedizioak, eskia, snowa, BTT...

Federatua izatearen abantailak

- Urte osorako mendi istripuetarako aseguruia. Aseguruaren barne, erreskateari loturiko gastuak, eta errehabilitazio zein erreku-perazio zerbitzuak zentro kontzertatueta.
- Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak eta beste eskolek antolatutako ikastaroetan parte hartzeko lehentasuneko tarifak.
- Deskontuak eta prezio bereziak, mendiko babesleku, aterpetxeetan. Baita mendiko materiala saltzen duten hainbat saltokietan.
- Eskalada, mendiko eskia eta mendiko lasterketetan parte hartu eta egutegi ofizialean lehiatuko diren taldeetan aritzeko hautatuak izateko aukera.
- Federazioaren laguntza teknikoa mendi ibilaldietan eta ingurumenean.
- Euskal Mendizale Federazioak argitaratzen duen Pyrenaica aldizkaria doan jasotzeko aukera.

Mendi aseguruaren tramitazioa eta argibideak

Tramitazio orria andatzamendizale.info web orrialdean eskura dezakezue, "Federatzeko 2015" atalean. Datu pertsonalak bete eta ordainketa egin, orrian bertan agertzen den kontu zenbakian. Izen emate orria modu honetan helarazi dezakezue:

-Ostegunetan 19:00-19:30 artean, Andatza M.K.T.ren udaletxe ondoko lokalean (DYAren egoitza ohian). Kontzejuzarra 3. Edo bertan dagoen postontzian utzi.

■ E-posta: andatza@hotmail.com
Argibide gehiagorako:

■ Web orria: andatzamendizale.info
("Federatzeko 2015" atalean).

■ Mendi Federazioan: gmf-fgm.org

Andatzakoek ordainketa egin dagoela egiaztatu eta datu pertsonalen orria jasota, Federazioa eramango dute. Une horretatik bertatik, aseguratua egongo da tramitazioa egin duen mendizalea. Federatu txartela aste batzuetara jasoko du. "Animatu mendian ibiltzen den jendea federatzera", luzatzen dute gonbita Andatzatik.

TXAPELDUN
TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna lurra 2, 943 11 82 53

ANTXETA
taberna-jatetxea
eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

USURBIL AUTOAK
·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTKEEN SALMENTA
Ford
SUSTITUZIO KOTKEA DOAN!!!
zerbitzu ofiziala
Zumartegi industrialdea
943 36 10 79

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Adosatu bat egiteko familia bat behar da Usurbilen. mareniria@gmail.com

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaia. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Etxebizitza salgai Zubietan. 1.Esk. 118 metro koadro, baratzat 2.500 m eta oilategia 140 m. Erreformatu egiteko. 230.000 euro. 616 649 674 Jabier.

Pisua salgai edo alokairuan. 3 logela, egongela, jangela, komuna, gas naturala eta berogailua. Tel. 619 212 860 / 685 228 194.

Pisua salgai. 90 metro karratu. Ganbara, komuna, bainugela, 3 logela, egongela eta sukaldea. 156.000 euro. 699 680 265.

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Inaki (665736896)

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an gutziz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukalde, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoal-

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaia.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAIA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

dera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Pisu bat, 3 logela, bi komun, jangela, saloia eta sukaldea, dena kanpora begira, San Inazio kalean. 699421239 Jesus

Gela baten bila nabil, partekatutako pisu batean. Tel. 619 817 460.

Lasarte edo Usurbil aldean pisua partekatzeko pertsona baten bila nabil. Prezio ekonomiko! 646305465

Pisu bat bilatzen dut alokairuan Usurbilen. Tel. 602 127 725.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Pisu berria 100 metro koadro. Egoera ezin hobea. Pertsona bat edo pertsona bat umearekin. Garajea aukeran. Prezio ona. 657 535 299.

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 570 euro. 2 logela, 2 hila-beteko fiantza. 667438145

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 600 euro. 2 hila-beteko fiantza. txangu68@hotmail.com

"Logela bat alokagai. 250 eu-

ro+gastuak. Kale Nagusian. 606 642 161

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Garaje itxia alokatzen da Kale Nagusia 22an. 20 m. 618 860 270

Honda Accord, 1.600 euro. Egoera onean. 696 50 67 39. 163.000km, gasolina, 5 ate, mailetero handia eta aire egokitua.

2 marra dituen, aparkalekuak alokatu nahi ditut. Kale Nagusiaren hasieran. Bizkarre auzoan. 70 euro hilabetea. 696 014 585.

Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen da. 943361235

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karratukoa. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduk edo amaieran

dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketa egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papela. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna eskaintzen da ume txikiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. Irailetik aurrera. Arduratsua. 671 547 567.

Herriko emakume euskaldun bat, oso informen onekin, arratsaldetan 2-3 orduz, haurrak edo helduak zaintzen lan egiteko eskaintzen da. 687 348 223

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filofosofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile tituluarrekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordu-tegi. Tel. 608 299 579.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordu-tegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordu-tegi. Esperientzia eta papela. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritza, garbiketan... 604148284.

Lan bila nabil, pertsona helduak, umeak, etab... zaintzeko. Esperientzia, tabernan, sukalde laguntzaile, garbiketan... 622 487

879.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prebentzioa ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papela egunean. Tel. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. Tel. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile tituluarrekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. Tel. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbil



Zorionak Intza!

Etxeko txikiak 2 urte beteko ditu ostiralean. Zorionak Intza eta muxu haundi bat etxekoan partez.



Zorionak Odei!

Abenduaren 14an 9 urte egiten dituzu. Muxu handi bat familia guztiaren partetik. Asko maite zaitugu!!



Zorionak Maren!

Abenduaren 4an gure etxeko txikiak urte bat egin zuen eta denok ospatu genuen. Txokolatezko muxu bat etxekoan partez.



Zorionak Aner!

Muxu potoloak etxekoan partez. Abenduak 5ean, 7 urte bete dituzu eta. Ea tarta ona ateratzen zaizun!!



Zorionak Ibai!!

Baga, biga, higa... laga, boga, sega... ZAI!!
7 urte abenduaren 15ean. Zorionak, Ibai!!



Zorionak Nora!

Abenduaren 14an 4urte!!
Ondo pasa printxsa, etxekoan partez.

len. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketari eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrek emateko prest: LHN ingelese, frantsesa, euskara, gaztelera eta ingurumena. DBH eta Batxiller-goan ingelese, frantsesa, euskara, gaztelera eta filosofia arloak, baita ingelesez ematen diren gaiak ere. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile titularekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldako laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketari edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsua lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketari egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Telefono zenbakia: 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko.

ko. 696 601 795

Klase partikularrek ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeaz eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Udan edo ikasturtean zehar umeak zaindiko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsonen erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrek emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsalde. Irakaskuntza gradu bukatzeaz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrek ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zaindiko nituzke goiz zein arratsalde. Irakaskuntzan diplomaduna. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketari. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketari eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrek ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrek emateko.

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereiziki dituzten ikasleei klase partikularrek emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

BESTELAKOAK

Sofa-ohet bat salgai. 70 euro. 655 731 915.

Atxegaldeko Erdiko kalean katu bat galdu da. Emea eta marroi oso argia, Sasi du izena eta argala eta txikitxo da. Norbaitek aurkituko balu eskertuko genuke abixatzea, eskerrik asko. 679132707

Etxean genituen bi kanario falta zaizkigu. Aurkitzen badituzue, deituz: 943 36 55 74 (Regina).

Kafetegi bateko material guztia salgai. 7 urte, diseinuko materiala eta kalitate handiko makinak. Fakturaren %50eko deskontuarekin. 607491079. Agustina.

Denborarik ez baduzu zure mas-kota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. As-teburutan. Tel. 688888176. Pablo.

Trona bat JANE markakoa salgai. Berri berria. Urdina marrazkiekin. Tel. 666 373 665.

Mutil gazte bat prest dago, rotabatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

Gidari arduratsua bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. 696264197.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 / djlara@usurbil.com

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiaro Kiroldegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak Abenduak 11 - abenduak 21

Osteguna 11 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 12 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 13 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 14 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Astelehena 15 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astearte 16 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteazkena 17 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Osteguna 18 RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

Ostirala 19 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 20 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 21 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00etatik
13:30etara

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
AIZPURI ODRIOLAZA, KARMELE.
Latxumbe berri, 11. Hernani. 943552087
22:00 - 09:00

Agenda abendua

12 ostirala

- VIII. Jostailu Azokarako material bilketak 17:00-19:00, Sutegiko erakustaretoan (ikus 12. orrialdean).

13 larunbata

- VIII. Jostailu Azoka frontoian.
- Madalena tailerra, 16:00etan Gaztelekuan.
- "Kondaira baten truke", antzerkia Aginagako ludotekan, 17:00etan.
- Andatzara gaztetxeokoen (ikus 3. or).

14 igandea

- Santo Tomas Azoka.
- Antonio Mercero Yarza musikariaren obra eta moldaketaren kontzertua. 13:00ean Salbatore parrokan.

"Kondaira baten truke" antzezlanaren Aginagan

Patata Tropikala antzerki taldearen lan honek "natura zaintzeaz, errespetuaz eta elkarbanatzearen garrantziaz hitz egiten du. Kolorea, irudimena eta umorea bertan izango dira". Larunbat honetan, abenduaren 13an, 17:00etatik aurrera Aginagako ludotekan. Antxomolantxa Elkartek antolatutako ekitaldirako sarrera doan.

Aginagako Guraso Elkartearen ekimenez, txokoetara joateko aukera izango dute Aginagako gaztetxoek. **Izena emateko epea abenduaren 12an amaituko da.**

- Abenduak 22, 23, 24, 26, 29, 30, 31, urtarrilak 2, 5.
- Ordutegia: Sarrera 9.00-10.00, irteera 13.00.



17:00etan hasiko da filmaren proiektzioa Sutegin. Sarrera: 3 euro, egunean bertan salgai.

- Prezioa haur kopuruaren arabera zehaztuko da.
- Izena ematea: 607 484 597 (Ainhoa) aginaga@eskolatxikiak.org

Ostegun honetan, Duo Jaderen emanaldia

Ostegun honetan, abenduaren 11n, iluntzeko 20:30ean Duo Jade kubatarraren emanaldiaz gozatzeko aukera izango dugu. Yanaisa Prieto Pedroso eta Maygred F. Bourricaudy Blanco bikotea Euskal Herrian dira eta Txiribogan arituko dira ostegun honetan. Lehendik ere Usurbilen egonak dira.

Kontzertua, Antonio Mercero Yarzaren omenez

"Usurbilgo herrian bere azken urteak eman zituen Antonio Mercero Yarza musikariaren obrak eta moldaketak interpretatuko dituzte bakarlariek eta Urmaiz (Ormaiztegi) zein Goratzar (Donostia) koruek, organo eta pianoaren laguntzaz". Igande honetan, abenduaren 14an, 13:00etan Salbatore Elizan. Sarrera doan.

Datozenak

Gabon kantuen entseguak Zubietan

Gabonak gainean ditugu eta gabon-kantuen entsaiatzen hastera doaz Zubietan. "Lehen saioa abenduaren 12an izango da eta bigarrena abenduaren 19an. Biak arratsaldeko 7etan Kaxkapen. Zahar, heldu, gazte eta haur, animatu guztiok! Ea talde polita osatzen dugun abenduaren 24rako".

Jon Uriberen omenezko argazki bilduma

Urtarrilaren 3an egingo zaion omenaldirako Jontxuren irudiak biltzen ari da, ekimena antolatzen ari den herritar taldea. Uriberekin ateratako irudirik baldin baduzue, bidali helbide honetara: jontxu.herriko.alkate@gmail.com.

Abenduaren 19koa, urteko azken NOAUA! aldizkaria

Eguberriak ate joka ditugu. Opor garaia askorentzat. Gogoan izan, urteko azken NOAUA! abenduaren 19an argitaratuko dugu. Gabonetan ez da astekaririk izango, urtarrilaren 9ra arte.

Honenbestez, ohar edo zorian agurrik baldin baduzue, datorren astelehena, abenduaren 15a baino lehen ekarri NOAUA!ra edo bidali emailaz erredakzioa@noaua.com helbidera. Argibideetarako, 943 360 321 telefono zenbakia.

ELORZA

OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

txirriStra

TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Zorte
On!



HURBILAGO

gabonetako zozketa

4 sari



Lehen saria:
BIZIKLETA COLUER
Sphera 260 Disc HD



Bigarren saria:
TELEBISTA
PANASONIC TX 42AS500E - 42"



Hirugarren saria:
Tablet
AIRIS ONEPAD 735



Laugarren saria:
Sukalderako ontziteria
ECCO 5 pieza

Abenduan egindako erosketetan, zozketan parte hartzeko tiketak banatuko dira, 10 €ko erosketa bakoitzeko tiket 1.
Eskuratu zure tiketak eta sartu saltokietan ipinitako zozketa-kaxetan.
Zozketa abenduaren 31ean egingo da Usurbilgo frontoian,
San Silvestre herri lasterketaren amaieran.

Antolatzailea

hurbilago

Usurbilgo Merkataritza eta Ostalarien Elkarteak

Babesleak



Usurbilgo Udala



Eusko Inundatza Gonberria Vasco

Santo Tomas eguna ospatzeko **deialdia**



**Babarrun eta
sagardo **lehiaketa****

Abenduaren **14an**
igande goizez

- Ixabel Agirresarobe **ipuin kontalaria**
- Gaztainak** eta bertan egindako **babarrunak** dastatzeko aukera
- **Noauako postua** eta **argazkitegia (zozketarekin)**
- Kantu jira 12:00tan Kli-k txarangak lagunduta** Mikel Laboa plazatik abiatuta
- Ziburuko ikastolen alde **bazkaria** (14:30 Udarregi ikastolan) txartelak aldeztuak



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udalak

